

LUR ERREBELDEAN

EtsaiakEroak 2016an sortu zuen Auo kantariak Lekeition. Bere itxurara, pentsamoldera eta irudira egindako taldea. Ideien lema-zainak aurrera egiteko beharrezkoak dituen unean uneko arraunlariak bilatu ditu EtsaiakEroak proiektua aurrera eramateko. Komunikazio eta lidergo atalak ongi menperatzen ditu, karismadun kantaria da eta talderako egokiena bilatuko du emandako urrats guztietan. Badaki non dagoen iparra, diskoaren iparra, kontzertuen iparra, taldearen iparra baina batzuetan hegoaldera begira jar dezake ontzia jakinda bide horrek iparraldera joateko ibilbide luzeago ekarriko diola, baina eguneroko lanek eta alboan dituen kideekin batera gai dira aterpera ekartzeko musikaren zirimola. Horregatik izan ditu aldaketak taldeak, eritmo biziari zaila da eustea eta batzuetan desadostasuna sor daitezke. Baina alboan beti lagunak, beti lagunak egiten esaldiari arrazoia emanez. Bi urteren buruan, bi disko.

EtsaiakEroak taldearen bigarren diskoa Axular Arizmendik grabatu eta nahastu du 2017ko urrian Mutrikuko AME estudioan. Iñaki Urrutiak diskoko baxu guztiak jo ditu. Tokik ahotsak (Nahi ta Ezin, Aurrera eskuak, Lur errebeldean, Abuso del poder). Mikel Lazkanok gitarrak: (Nahi ta Ezin, Aurrera eskuak, Lur errebeldean, Abuso del poder). Juan S.A. taldeko ahotsa sartu du Abuso del poder kantuan eta ahotsaren grabaketa horretaz S.A. taldeko Jimmy arduratu da. Eneko Garilak 26 taldekoak alboka jo du Aurrera eskuak abestian. Larraitz Pie de Hierrok irrintziak eta txalaparta grabatu ditu Aurrera eskuak abestian. Kubako Ismelek azala egin du.

EtsaiakEroak taldearen bigarren diskoa, "Lur errebeldean", musika matxinoaren bigarren kolpe bortitza da. EtsaiakEroak taldeak musika ulertzeko modua muturrekoa da, erdibidekoa bide ertzean utzita. Abiadura ahotsean, raparen trebetasuna, ziztu bizian gitarretan, baxuan txinparta, baterian kolpe zorrotza eta latza eta perkusioetan bizipozaren kontrapuntua. Trinko eta kamutsik gabe doa hard-corea metalaren ondarearekin babestuta eta punkaren keinuekin lagunduta. EtsaiakEroak taldearen musikari kolorea emateko perkusioen pilula magikoak daude, melodia tribalen dantzagarritasuna atxikitzeko, su urdinetan edonor kiskaltzeko arrazoiak dira. Aurrekuaren bertsio biribila egin dute, euskal sena eta tradizioari gorazarre egiteko, euskal kutsua hard-corearen esparruan, denek jakin dezaten bidean doala EtsaiakEroak. Soinu eta ekoizpen izugarria, puntakoa.



ETSIAIKEROAK

Urte osoa bizi-bizi eraman dugu, 25 kontzertu, Euskal Herriko hiriburuetan jo dugu, jai handienetan izan gara, baita herri txikiaketa jai herrikoietan, Kuban egon gara, Katalunian. Hau guztia egin ondoren, taldean aldaketak izan ditugu, batzuk irten eta beste batzuk sartu dira, eta Auok hor segitzen du dena koordinatzen, lan berri hau borobiltzeko Axular eta Dannekin batera. Emaiza errebeldea da.

NAHI TA EZIN

EtsaiakEroak taldearen musika eta partaideak finkatu direla erakusten du abesti honek. Danborrak, perkusioak, samplerrak, gitarra indartsuak, soinu borobila, soinu berezi eta gogorra. Entzuleari alde zurretik esan nahi dio zer datorren EtsaiakEroak taldearen musikarekin. Nahiz eta gauza asko nahi, beste asko ezin dira lortu. Musikan asko aurreratzen du taldeak, eta hemen dugu horren adibidea itzela.

AURRERA ESQUAK

Ereserki honek ez du utziko inor epel edo hotz. Denok dakigu eta daukagu barnean melodia. Bihotzez egin diogu aurrekuari bertsio hau. Letra oso zuzena da. Denok ukitzen gaituzten gaiak jorratu ditugu: askatasuna, beti aurrera, tinko eta denok batera. Betiko hitzak dira baina une egokietan garrantzi gehiago hartzen dute. Gero datoz txalaparta, alboka, irrintziak... hor daude euskaldunen sustraiak.



ritxi aizpuru + etsaiakeroak (2016ko azaroaren 24a)

ABUSO DEL PODER

Ez dakigu nola eskertu gure aitzinako lagun musikariak botatako eskua! S.A. taldeko Juanillok ahotsa sartu du eta taldeko bereko Jimmy grabatu du euren Gasteizko estudioan. Horretarako gaudete betiko lagunak. Toki Etsaiak rapeatzen ari da, ezin hobeto! Letra zuzena da berrira, sarkorra eta gaur egungoa, bizi dugu momentu surrealistaren kritikatzan du. Juanitoren ukitua urrutitik antzeman daiteke nahiz eta Auoren garrasiak erdian egon. Eromena da jarraitzaile guztientzat, seguru. Metala eta hard-corea nahasten dituen gitarraren riffak izugarriak dira, egungoak eta batera apurtzaile dator kolpe bakoitzean. Denak emanda goaz.

LUR ERREBELDEAN

Kantu honek batzen ditu disko honetan sartu ditugun osagai guztiak. Talde lana egin dugu, bakoitzak ahal duen onena eman du. sentimendua, kontzientzia gaur egungo egoerarekin eta etorkizuneari izango dugunarekin edo dutenarekin. Agian kostaldeak ematen diguna aprobetxatzen dugu, egunero ikustea nola hasten diren egunentziak garrantzi handia du, freskotasuna dakarkio abestiari. Azala Kubako Ismel lagunak egin digu Auoren marrazki batean oinarrituta: sua, apurtutako alambre arantaduna. Indarra musikan, irudian eta mezuetan.

BALA PERDIDA

Barrabaskeriari egindako ereserkia, zer izan garen, zer garen eta zer izango garen erakusten du. Ero askeak, akabera arte bizitzeko gogo itzelarekin. Beti gazte izan nahi dugu; denok darماغu gure barruan geldiezia den bala hori eta horrekin denok bat egiten dugu. Alproja edo bala galdua azkarra da, trinkoa eta bizia... galgarik gabe.

NON STOP MUSIKA

Diskotzarra bukatzeko erremate trebea. Agurtzeko baina ez gelditzeko inoiz eta beti zarata egiten jarraitzeko. "Radio Rebelde" Kubako iraultzako irratia diskoan dago, nola ez! EtsaiakEroak taldeak Kuban emandako biraren ondoren izugarriko musika eraginarekin etorri da eta hori entzun daiteke kantuen azkeneko rapean, gaztelaniz eta euskaraz abestutako zatia da. Musikari esker bizitza guztia darماغu bueltaka, jende eta leku berriak ezagutzen. Eta ez dadila inoiz isildu horrela guk ere birak jarraituko dugu gozatzen, harremanak trukatzan. Beti gure buruan dugu entzuleari momentu onak eskaintzea, jendeak ongi pasa dezan.

Jon Estankona: bateria

Dann Hoyos: gitarra eta koruak

Auo: ahotsa

Axular: perkusioak, samplerrak eta ekoizpen orokorra

Josu Holly Brandy: gitarra eta koruak

baga biga

MUSIKA IDEIAK



Tel. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eu / info@baga-biga.eu
221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)